



ETIOPIAKO AECID HITZARMENEN KOORDINATZAILEA IZANGO DEN KOOPERANTEA HAUTATZEKO PROZESUAREN DEIALDIA

Medicus Mundi Gipuzkoa Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea (GGKE) da, irabazi-asmorik gabea, erlijio eta politika aldetik independentea, eta 1974tik osasun globalerako eskubidearen alde lan egiten du. Medicus Mundi Gipuzkoan, osasun globala giza eskubideen oinarritzko osagaitzat hartzen dugu, eta, horregatik, populazio behartsuenen bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten dugu.

Medicus Mundi Gipuzkoak 24 urte baino gehiago daramatza Etiopian, emakumeen eskubideak aitortzearen alde lan egiten, eta esku hartzeko eremuetan kalteberatasun handieneko egoeran dauden biztanleei lehentasuna ematen.

Hautatutako pertsona **AECID "Somaliako Eskualdeko hegoaldean genero-arrakalak eta indarkeria matxistak murriztuz" hitzarmeneko** koordinatzaile atzerriatua izango da. Hitzarmenaren helburua Somaliako Eskualdeko emakumeak ahalduntzea da, eremu publikoan parte har dezaten sustatuz, gaitasunak areagotuz eta indarkeria matxisten prebentzioa eta arretoa hobetuz.

FUNTZIOAK:

1. Hitzarmena Egoitzako teknikariarekin koordinatuta zuzentzea:

- Hitzarmenaren helburuak eta jomugak betetzen direla zaintzea, emaitzetara bideratutako kudeaketa ziurtatuz.
- Hitzarmenaren gauzatzea koordinatzea, tokiko erakunde bazkidearekin eta egoitzako teknikariarekin koordinatuta.
- Kalitate tekniko eta hitzarmenaren betearazpenaren eta plangintzen betetzearen jarraipena gainbegiratzea, baliabideen erabilera eraginkorragoa izan dadin egin daitezkeen aldaketak aurreikusiz eta neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Babesa eta bermea genero-ikuspegiaren zeharkakotasunean.
- AECIDen kontrol- eta justifikazio-oinarriak eta -arauak betetzearen arduraduna.
- PACak eta jarraipen-txosten teknikoak, ekonomikoak eta administratiboak egitea, AECID erduei jarraiki.
- Proiektuaren finantza- eta kontabilitate-gainbegiratzea: kontuen jarraipena egitea, hitzarmenaren aurreikuspenak eta analisi ekonomikoak egitea, eta auditoriak prestatzea.

2. Barne-koordinazioa ziurtatzea hitzarmenean inplikaturako alderdiekin:

- Tokiko bazkidearekiko harremana zaintzea, hartutako erabakien jarraipena eginez.
- Tokiko bazkidearen gaitasunak indartzea: prestakuntza, aholkularitza eta laguntza. Azterketa eta sistematizazio espezifikoek ekarpena.
- Jarraipena egiteko eta bertan egoteko bidaiak, eskubideen eta betebeharren titularrekin batera.

- Etengabeko komunikazioa OCerekin, eta herrialdeko lankidetzajardueretan parte hartzea.
- Etengabeko komunikazioa eta elkarlana egoitzako teknikariarekin.

3. Medicus Mundi Gipuzkoako taldearekin lankidetzaz ziurtatzea:

- Balio erantsia ematea Medicus Mundi Gipuzkoako taldeari, ezagutzen kudeaketan eta transferentzian.
- Medicus Mundi Gipuzkoan kontuak emateko behar diren intsumo guztiak sortzea.
- Etengabeko komunikazioa izatea medicusmundi gipuzkoaren bulegoarekin.

Betebeharrekoak:

- Goi-mailako unibertsitate-titulua.
- Ingelesa eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
- AECID proiektuen eta/edo hitzarmenen identifikazioan, formulazioan, gauzatzean, jarraipenean eta ebaluazioan esperientzia izatea, batez ere Afrikan.
- Genero-ikuspegia ezartzen eskarmentua eta formakuntza izatea.
- Marko logikoaren ikuspegiaren metodologia ezagutzea.
- Informatikako ezagutzak, txosten teknikoak eta ekonomikoak egiteko.

Baloratuko da:

- Etiopiako eta Afrikako errealitateak ezagutzea.
- Erantzukizun handia. Ekimenerako gaitasuna, proaktibitatea eta planifikatutako jardueretikiko konpromisoa.
- Lanerako eta gatazkak konpontzeko gaitasuna.

Baldintzak:

- Asteko lanaldia: 35 ordu.
- Lantokia: Etiopia.
- Kontratu mota: lanaldi osoko lan-kontratu, medicusmundi gipuzkoako soldata baremoaren eta baldintzen arabera.
- Soldata: Medicus Mundi Gipuzkoaren soldata-baremoaren arabera.
- Lanean hasteko gutxi gorabeherako data: 2025eko apirila.

Interesa dutenek curriculum vitae-a bidali beharko dute 2025eko otsailaren 21a baino lehen, emailaz gipuzkoa@medicusmundi.es edo postaz (Serapio Mujika kalea, 33, behea. 20016 Donostia), "Etiopian Kooperante" gaiarekin.